

**HITZARMENA, BILBOKO UDALAREN
ETA OPEN URBANITY ELKARTEAREN
ARTEKOA, 2026KO UDAL
AURREKONTUAN AURREIKUSITAKO
DIRULAGUNTZA IZENDUNA
BIDERATZEN DUENA
ARKITEKTURAREN ETA HIRIGINTZAREN
ARLOKO ZABALKUNDE ETA IKERKETA
AURRERATURAKO**

Bilbon, 2026ko uztailaren 29an

BILDU DIRA

Alde batetik, Asier Abaunza Robles jauna, XX.XXX.XXX-X NAN zenbakiduna, Bilboko Udaleko Hiri Plangintzako, Proiektu Estrategikoetako eta Espazio Publikoko Saileko ordezkaria, bere kargua betez eta Bilboko Udala ordezkatzuz.

Bestetik, Andoni Pombo Aramendi jauna, XX.XXX.XX-X NAN zenbakiduna, arkitekturaren eta hirigintzaren arloko zabalkunde eta ikerketa aurreraturako OPEN URBANITY (IFK: G95862579) elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz, Estatutuetan eta 2022ko maiatzaren 30eko 762 zenbakiko ahalorde bereziko eskrituran aurreikusitako ahalmenak erabiliz.

**CONVENIO POR EL QUE SE CANALIZA
LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA
PREVISTA EN EL PRESUPUESTO
MUNICIPAL PARA EL AÑO 2026 ENTRE
EL EXCMO AYUNTAMIENTO DE
BILBAO Y LA ASOCIACIÓN OPEN
URBANITY PARA LA DIVULGACIÓN E
INVESTIGACIÓN AVANZADA EN
ARQUITECTURA Y URBANISMO**

En Bilbao, a 29 de julio de 2026

REUNIDOS

De una parte, D. Asier Abaunza Robles, con D.N.I. XX.XXX.XXX-X, Delegado del Área de Planificación Urbana, Proyectos Estratégicos y Espacio Público del Ayuntamiento de Bilbao, actuando en el ejercicio de su cargo y en representación del mismo.

Y de la otra, D. Andoni Pombo Aramendi, con DNI XX.XXX.XXX -X actuando en nombre y representación de la Asociación OPEN URBANITY para la divulgación e investigación avanzada en arquitectura y urbanismo con CIF G95862579, en el ejercicio de las facultades previstas en los Estatutos y la Escritura de Poder Especial nº 762 del 30 de mayo de 2022.

HAUXE ADIERAZTEN DUTE:

I.- Bilboko Udalak eta, haren barruan, Hiri Plangintzako, Proiektu Estrategikoetako eta Espazio Publikoko Sailak hirigintzaren alorreko eskumena eskumen propio gisa esleitura dauka, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Indarrean dagoen araudiak eta, zehazki, EAEko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak, hirigintzaren printzipio orokorren artean, herritarren parte-hartzearen printzipioa ezartzen dute eta eskubide hori zenbait tresnaren bidez bermatzen dute. Ez dago zalantzarik herritarren parte-hartzeak informazio, eztabaida, hedapen eta esperientzia-trukaketako prozesuak behar dituela, eta prozesu horiek eremu publiko eta instituzionalak ez ezik hiriaren eraikuntzan parte hartzen duten eragileek abiatu ditzaketela.

Hori dela eta, udalarentzat interesgarria da OPEN URBANITY Elkartek 2026an Open Bilbao Jaialdiaren X. edizioa egiteko aurkeztu duenaren moduko ekimenak aintzat hartzea eta sustatzea. Open

EXPONEN

I.- El Ayuntamiento de Bilbao, y dentro del mismo, el Área de Planificación Urbana, Proyectos Estratégicos y Espacio Público, tiene atribuida como competencia propia la relativa a la materia de urbanismo, de acuerdo con el artículo 25 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

Entre los principios generales del urbanismo, la normativa vigente, y claramente la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo de la CAPV, establece el de la participación ciudadana, garantizando este derecho a través de diversos instrumentos. No cabe duda, que la participación ciudadana, requiere de procesos de información, debate, difusión e intercambio de experiencias que pueden ser generados no sólo en el ámbito público e institucional, sino también por los diversos agentes que intervienen en la construcción de la ciudad.

Por ello, resulta de interés municipal el atender y fomentar iniciativas como la que se presenta por la Asociación OPEN URBANITY para la celebración en 2026 de la X Edición del Festival Open Bilbao.

Jaialdiak Bilboko arkitekturan eta hirigintzan parte hartzea eskaintzen die herritarrei. Londresen duela 25 urte baino gehiago jaio zen ekitaldi horren bidez, arkitektura eta hirigintza ezagutzeko aukera eskaintzen da, baita zabaltzeko eta sozializatzeko aukera ere. Ekimen horren bidez, hiri-gai nabarmenen garrantzia azpimarratzen da, eta hiriaren eraikuntzari eta plangintzari, diseinuari, hirigintza-erabakiei, azpiegiturei, ekosistemei, paisaiei, hiri-prozesuei eta abarrei buruzko informazioa ematen zaie herritarrei, eta horiei buruzko gogoeta eginarazten zaie.

Horretarako, doan irekitzen dira hiriko hainbat eraikin, bizi garen, lan egiten dugun eta ondo pasatzeko erabiltzen ditugun lekuak erakutsiz; ez bakarrik prentsa espezializatuaren fokua diren eraikin ikonikoak, baita historiako aldi guztietako eskolak, eraikin publikoak, etxeak eta bulegoak ere, eta horrek hiriaren irudi zabalagoa sortzen laguntzen du.

II. Jaialdi honen alderdi aipagarrienetako bat da urtero ehunka boluntarioren konpromisoa eta gogo bizia daukala, eta horregatik da hain berezia jaialdia.

El Festival Open, ofrece a la ciudadanía participar de la arquitectura y urbanismo de Bilbao. A través de este evento, nacido en Londres hace más de 25 años, se ofrece la oportunidad no solo de conocer sino también de difundir y socializar la arquitectura y el urbanismo. A través de esta iniciativa se pone en valor cuestiones urbanas destacadas, informando y haciendo reflexionar a la ciudadanía sobre la construcción y planificación de la ciudad, el diseño, las decisiones urbanísticas infraestructuras, ecosistemas, paisajes, procesos urbanos...

Para ello se abren gratuitamente las puertas de distintos edificios de la ciudad, mostrando los lugares donde vivimos, trabajamos y disfrutamos; no sólo los edificios icónicos, que son el foco de la prensa especializada, sino también escuelas, edificios públicos, casas, oficinas de todos los periodos de su historia, lo que ayuda a crear una imagen más amplia de la ciudad.

II. Una de las cuestiones destacables de este Festival es que cuenta año tras año con el compromiso y entusiasmo de cientos de personas voluntarias, lo que hace que el festival sea tan especial.

III. Open Jaialdiaren edo Arkitekturen Jaialdiaren hamargarren edizioak materia hartuko du gai nagusitzat, irailaren 28tik urriaren 4ra bitartean. Jaialdiak, urtez urte, bere ikuspegia zabaldu, eta modu zabalago eta irekiagoan ulertu du arkitektura: ez bakarrik eraikitako emaitza gisa, baizik eta gizarte-, ekonomia-, kultura- eta ingurumen-harremanek osatzen duten sare konplexu baten adierazpen gisa ere.

Edizio honetan, materiari buruzko hausnarketa egitea proposatuko da. Hausnarketa horretan, materia gure hiriak, identitateak eta bizitzeko modua eraikitzeke funtsezko osagaitzat hartuko da. Izan ere, eraikuntza bakoitzaren atzean (hau da, gure hiriak osatzen dituzten eraikin eta espazioen atzean), askotan ikusezin geratzen den errealitate zabal bat dago: hura posible egin zuten baliabideak, ezagutzak, eraikuntzan parte hartu zuten lanbideak, erabilitako teknologiak, materia eraldatzeko ekoizpen-prozesuak eta normalean ikusezin geratzen diren kultura-harremanak. OPENen hamargarren edizioak sare konplexu horretara zuzentzen du bere begirada.

Interes arkitektonikoko guneetara egingo diren bisitez gain, Bilbo eta haren ingurunea historian zehar eraikitzen lagundu duten

III. Esta décima edición del Festival Open, Festival de Arquitecturas tiene como tema central la materia, se celebrará del 28 de septiembre al 4 de octubre, festival que evoluciona con el objetivo de ofrecer una mirada más amplia y abierta sobre la arquitectura, para comprenderla no solo como resultado construido, sino también como expresión de una compleja red de relaciones sociales, económicas, culturales y ambientales.

En esta ocasión, se propone una reflexión sobre la materia como elemento fundamental en la construcción de nuestras ciudades, nuestras identidades y nuestra forma de habitar. Detrás de cada construcción (edificios y espacios que conforman nuestras ciudades) existe una compleja red, que permanece habitualmente invisible, de recursos que la hicieron posible, conocimientos, oficios que participaron en su construcción, tecnologías empleadas, procesos productivos de transformación de la materia y relaciones culturales que permanecen habitualmente invisibles. La décima edición de OPEN dirige su mirada hacia esa compleja red.

Junto a las visitas a espacios de interés arquitectónico se incorporarán actividades que inviten a reflexionar sobre los

materialen, lanbideen, ekoizpen-sistemen eta kulturen inguruko jarduerak ere garatuko dira. OPENek lurraldearen, materiaren eta kulturaren arteko loturak aztertzeke gonbita egiten du.

OPENek profesionalen, ikertzaileen, artisauen, ikasleen, kultura-eragileen eta herritarren arteko elkarriketa sustatuko du, esperientziak partekatzeko eta hiri garaikidea interpretatzeko modu berriak sortzeko guneak eskainiz.

OPENen hamargarren edizioan, honako hauek egin ahal izango dira:

BISITATU (Open Espazioak, Bisitak, Open Estudioak eta Open anfitrioiak; arkitektura espazioa ondoen ezagutzen duten pertsonen eskutik bisitatuz, alegia jabeen, kudeatzaileen eta ohiko erabiltzaileen eskutik, hiriaren kultura materialari buruzko hausnarketari giza eta bizipen-dimentsioa emanez), euskaraz zein gaztelaniaz egingo dira bisitak, taldearen eskakizunen eta gida gisa jarduten duten boluntarioen hizkuntza-gaitasunen arabera. **IKUSI** (Zineforuma). **HITZ EGIN** (hitzaldiak, solasaldiak eta eztabaida irekiak lanbidean aritzeko modu berriei, prekarietateari edo arkitekturan genero ikuspegia txertatzeari buruz hausnartzeko). **JOLASTU**. Eta **IBILI**.

materiales, los oficios, los sistemas productivos y las culturas que han contribuido históricamente a construir Bilbao y su entorno. OPEN propone indagar en los vínculos que se generan entre territorio, materia y cultura.

OPEN fomentará el diálogo entre profesionales, investigadores, artesanos, estudiantes, agentes culturales y ciudadanía, generando espacios donde compartir experiencias y construir nuevas lecturas sobre la ciudad contemporánea.

En la décima edición de OPEN se podrá:

VISITAR (Espacios Open, Visitas, Estudios Open, anfitriones OPEN visitando la arquitectura de la mano de los que mejor conocen el espacio: propietarios, gestores y usuarios habituales, aportando una dimensión humana y vivencial a la reflexión sobre la cultura material de la ciudad) visitas disponibles tanto en euskera como en castellano en función de requerimientos del grupo y de competencias lingüísticas de personas voluntarias que actúen como guías, **VER** (Cine-Forum), **DIALOGAR** (conferencias, charlas y debates abiertos para reflexionar sobre nuevas formas de ejercer la profesión, la precariedad o la

OPENen ustez, euskara Bilboko kultura- eta gizarte-ondarearen funtsezko elementua da. Horregatik, antolatzaileek ahalegin berezia egiten dute jarduerak parte-hartzaileen hizkuntza-errealitatera egokitzeko eta, orobat, borondatezko lankidetzan oinarrituta dagoen hiriko jaialdi irekiaren ezaugarriak ere kontuan hartzeko.

IV. Bestalde, esan behar da Open City Architecture erakundea dela global Open House Worldwide markaren jabea, eta Open Urbanity irabazi-asmorik gabeko elkartearekin akordio bat sinatu duela markaren erabiltzaile gisa eta bere marka erabili ahal izateko Bilbon Open Jaialdia ekitaldia antolatzeko.

V. Hitzarmen honen helburua da arkitekturaren eta hirigintzaren arloko zabalkunde eta ikerketa aurreraturako OPEN URBANITY elkarteari dirulaguntza bideratzea. Izan ere, Udalbatzak 2026ko ekitaldiko aurrekontuan sartu zuen dirulaguntza, Hiri Plangintzako, Proiektu Estrategikoetako eta Espazio Publikoko Sailak proposatuta, 4. kapituluan (Transferentzia arruntak) kontsignatutako kredituaren barruan. Laguntza HIRUROGEITA HAMABI MILA ETA

incorporación de la perspectiva de género en la arquitectura,), JUGAR y CAMINAR.

OPEN entiende el euskera como un elemento fundamental del patrimonio cultural y social de Bilbao. Por ello, la organización procura adaptar sus medidas a la realidad lingüística de las personas participantes y a las características propias de un festival abierto y urbano y basado en la colaboración voluntaria.

IV. Por otro lado, cabe señalar que Open City Architecture, es la entidad propietaria de la marca global Open House Worldwide, quien ha suscrito un acuerdo con la Asociación sin ánimo de lucro, Open Urbanity, como usuaria de la marca y con el fin de poder utilizar su marca para la organización de un evento Festival Open Bilbao.

V. La finalidad del presente convenio es canalizar a favor de Asociación OPEN URBANITY para la divulgación e investigación avanzada en arquitectura y urbanismo, la subvención que el Pleno del Ayuntamiento incluyó en el Presupuesto del ejercicio 2026 de esta Entidad, a propuesta del Área de Planificación Urbana, Proyectos Estratégicos y Espacio Público, dentro del crédito consignado en el capítulo 4 “Transferencias corrientes”, siendo el importe de la dotación de

SEIEHUN EUROkoa da (72.600 €) eta Open Bilbao Jaialdiaren X. edizioa antolatzeko erabiliko da. Hitzarmenaren beste helburu bat da onuradunak onartzen dituen baldintzak eta betebeharrak zeintzuk diren zehaztea.

Hori guztia ikusita, hitzarmen hau formalizatu dute.

KLAUSULAK

BAT.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Bilboko Udalak arkitektura eta hirigintzaren arloko zabalkunde eta ikerketa aurreraturako OPEN URBANITY elkarteari eman beharreko dirulaguntza izenduna bideratzea, Open Bilbao Jaialdiaren X. edizioa antolatzeko, Bilbon, irailaren 28tik urriaren 4ra bitartean.

Dirulaguntza jaialdiaren antolaketa finantzatzera bideratuko da oso-osorik. Proposatutako programaren arabera egingo da eta gastuen aurrekontua LAUROGEITA HAMABI MILA ETA SEIEHUN EUROKOA (92.600,00 €) izango da.

BI.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA AURREKONTU-KREDITUA

SETENTA Y DOS MIL SEISCIENTOS EUROS (72.600,00 €), destinado a la organización de la X Edición del Festival Open Bilbao, así como establecer las condiciones y compromisos que asume la persona beneficiaria.

Por todo ello, formalizan el presente convenio, con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA. - OBJETO

Es objeto del presente Convenio, canalizar la subvención nominativa a conceder por Ayuntamiento de Bilbao a la Asociación OPEN URBANITY para la divulgación e investigación avanzada en arquitectura y urbanismo, para la organización X Edición del Festival Open Bilbao, que tendrán lugar en Bilbao desde el 28 de septiembre al 4 de octubre.

La subvención será destinada íntegramente a la financiación de la organización del citado festival, que será desarrollado conforme al programa propuesto y cuyo presupuesto de gastos asciende a NOVENTA Y DOS MIL SEISCIENTOS EUROS (92.600,00 €).

SEGUNDA. - CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN Y CRÉDITO PRESUPUESTARIO

Bilboko Udalaren aurrekontuan OPEN URBANITY elkartearen alde aurreikusitako dirulaguntza izendunaren zenbatekoa 72.600,00 eurokoa da, hau da, udal-aurrekontuko 2026 41010 15020 48199, PEP 2026/00060 partidan esleitutako kreditua.

HIRU.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

Hitzarmen honetan aurreikusitako dirulaguntza bateragarria da onuradunak beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emanik (estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak) helburu berarekin jasotzen dituen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin. Halakorik jasotzen badu, Udalari jakinarazi behar dio.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan diruz lagunduko den ekintzaren kostua baino, ez banaka hartuta, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batuta. Handiago bada, aldatu egingo da diru-esleipena, edo dagokion itzultzea egin beharko da.

LAU.- DIRULAGUNTZA EMATEKO BALDINTZAK

Dirulaguntzaren onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

La cuantía de la subvención nominativa prevista en el Presupuesto del Ayuntamiento de Bilbao a favor de la Asociación OPEN URBANITY es de 72.600,00 euros, que es el crédito consignado en la partida 2026 41010 15020 48199, PEP 2026/00060, del presupuesto municipal.

TERCERA. - COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES

La subvención prevista en este Convenio es compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que para la misma finalidad perciba la beneficiaria de otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, estando obligado a poner en conocimiento del Ayuntamiento la obtención de las mismas, si las hubiera.

El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar a la modificación de la concesión o reintegro correspondiente.

CUARTA. - REQUISITOS PARA LA CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La beneficiaria de la subvención deberá aportar la siguiente documentación:

- a) IFKren kopia.
- b) Hitzarmenaren sinatzaileak daukan ordezkaritza frogatzen duen agiria.
- c) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuradun izateko ezartzen dituen debekuetako bat ere ez duela adierazten duena.
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 27.2 artikuluko jokabideetan ez dagoela jasotzen duena.
- e) Zergak ordainduta edukitzearen egiaztagiria, zerga arloko Administrazioak urte barruan emana, edo udalari baimena ematen dion agiria zergen arloko zorrik ez daukala egiaztatzeko.

- a) Copia del CIF.
- b) Documento que acredite la representación que ostenta el firmante del Convenio.
- c) Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria, previstas en el art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- d) Declaración responsable de no estar incurso en las conductas del artículo 27.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
- e) Certificación acreditativa de estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales, expedida en el año en curso por la Administración tributaria competente o autorización al Ayuntamiento para comprobación de estar al corriente con las obligaciones fiscales.

f) Egiaztagiria, Gizarte
Segurantzaren Diruzaintza
Nagusiak urte barruan emana,
egiaztatuz Gizarte
Segurantzarekin zorrik ez daukala
edo ez daukala langilerik bere
ardurapean, edo udalari baimena
ematen dion agiria Gizarte
Segurantzarekin zorrik ez daukala
egiaztatzeko.

f) Certificación acreditativa de
estar al corriente del pago de las
obligaciones de la Seguridad
Social, o de no tener personal
trabajador a su cargo, expedida
en el año en curso por la
Tesorería General de la
Seguridad Social, o autorización
al Ayuntamiento para
comprobación de estar al
corriente de pago de las
obligaciones de la Seguridad
Social.

BOST.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK ETA MODUAK

Zenbateko osoa ordainketa bakarrean
ordainduko da hitzarmena sinatu ondoren;
eta ez zaio inolako bermerik exijituko
onuradunari.

SEI.- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

Dirulaguntza eskaerarekin aurkeztutako
gastu-aurrekontuaren % 100 justifikatu
behar da.

Onuradunak dirulaguntza emateko ezarri
zen xedea betetzen dela frogatu beharko du
3 hilabeteko epean, diruz lagundutako
jarduera amaitzen denetik aurrera
zenbatuta. Horretarako, justifikazioko kontua
aurkeztu beharko du, gastuen
egiaztagiriekin batera. Honako elementu
hauek eduki beharko ditu:

QUINTA.- PLAZOS Y MODOS DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la cantidad total se efectuará
en un único pago tras la firma del
Convenio, no exigiéndose para ello
garantía alguna al beneficiario.

SEXTA. - PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Se deberá justificar el 100% del
presupuesto de gastos presentado a
subvención.

La beneficiaria deberá justificar el
cumplimiento de la finalidad para la que se
concedió la subvención en el plazo de 3
meses contados desde la finalización de la
actividad subvencionada. La justificación
se hará mediante la presentación de la
Cuenta Justificativa con aportación de
justificantes de gastos que incluirá:

1. Hitzarmen honetako baldintzak bete direla frogatzen duen memoria; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak ere adierazi beharko dira memoria horretan.
2. Programa betearaziz izandako gastuen eta diru-sarreraren balantzea, Udalak emandako eredua erabilita.
3. Programa betearazteko epearen barruan egiten diren gastuak egiaztatzen dituen jatorrizko justifikazio-dokumentazioa, honako hauek bereiziz (onuradunak jatorrizko agiriak itzultzeko eskatzen badu, kopia ere aurkeztu beharko du):

- Programa gauzatzearekin zuzenean lotutako kostuak. Kostu horiek osorik justifikatu beharko dira, fakturen eta froga-balio baliokidea duten gainerako agirien bidez. Dokumentu horiek justifikatzen duten programari buruzkoak baizik ez dira izango, eta datu hauek jasoko dituzte:

- ✓ Onuradunaren identifikazioa.
- ✓ Gastuaren xedearen deskribapena, programa gauzatzearekin zuzenean lotuta egongo dena.
- ✓ Legez exijitu daitezkeen gainerako datuak.

Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsonak noizean

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en el presente Convenio, en la que se indicarán las actividades realizadas y los resultados obtenidos, que deberá ser bilingüe.
2. El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del Programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.
3. La documentación original justificativa que acredite los gastos -en el caso que la entidad solicite devolución de los originales deberá presentar además copia de los mismos- efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose, a estos efectos:

- Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documento de valor probatorio equivalente. Estos documentos se circunscribirán únicamente al programa que justifican, deberán incluir, en todo caso, los siguientes datos:

- ✓ La identificación de la persona beneficiaria.
- ✓ La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.
- ✓ Demás datos legalmente exigibles.

Con carácter excepcional, en supuestos de actividades realizadas ocasionalmente

behin egiten dituzten jarduerak badira, onargarria izango da adostutako prestazioaren zenbatekoaren hartze-agiria agertzen duten dokumentuak aurkeztea, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporte). Zenbatekoa 200 eurotik gorakoa denean, gainera, derrigorrezkoa izango da hartzailearen banku-kontuan abonua egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Langileen gastuak justifikatzeko, nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

- Zeharkako kostuak: beren-beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio onuradunak, arrazoizko neurrian, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrira eta, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak izanik, eta inola ere ezingo direlarik izan diruz lagundutako programaren kostuen ehuneko 10 baino gehiago. Justifikatzeko orduan, dirulaguntza emateko baliatutako aurrekontuan onuradunak berak deklaraturakoa izango da zeharkako kostuetan onartuko den ehunekoa eta, hala, egiaz justifikatutako zuzeneko gastuei aplikatuko zaie ehuneko hori.

por personas que no ostentan la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de los documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte de la persona) de la persona perceptora. Cuando su importe sea superior a 200€, además, se deberá acompañar el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la Seguridad Social.

- Los costes indirectos, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes deberán imputarse por la entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, se pueda imputar una cantidad superior al 10 por ciento de los costes del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre

4. Eskatu beharreko hiru aurrekontuak, diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikietarako ezarritakoa (14.999,99 € euro, BEZa aparte, ondasunen eta ekipoen, zerbitzuen eta abarren hornidurarako) baino handiagoa denean. Proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez bada, berariaz justifikatu beharko da hori, memoria batean.

ZAZPI.- AZPIKONTRATAZIOA

Diruz lagundutako jarduera egitea partzialki azpikontratatu dezake onuradunak, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 50a gainditzen ez duen portzentaje bateraino.

ZORTZI.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- Hitzarmen honen xede den jardueratik erantzukizunik eratorriz gero, bere gain hartu behar du oso-osorik eta, hala, Bilboko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango jarduera hori dela-eta.
- Diruz lagundutako jarduera dela-eta sortzen dituen dokumentuetan

los gastos directos efectivamente justificados.

4. Los tres presupuestos que deben haberse solicitado cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor (14.999,99€ IVA excluido, en el supuesto de suministro de bienes y equipos, servicios...). En el supuesto que la elección no recaiga en la propuesta económicamente más ventajosa se deberá justificar tal elección expresamente en una memoria.

SEPTIMA.- SUBCONTRATACIÓN

La beneficiaria podrá subcontratar parcialmente la ejecución de la actividad subvencionada, hasta un porcentaje que no exceda del 50 por ciento del importe de la actividad subvencionada.

OCTAVA.- OTRAS OBLIGACIONES DE LA BENEFICIARIA:

- A asumir toda la responsabilidad que pudiera derivarse de la actividad objeto del presente convenio, de tal forma que el Ayuntamiento de Bilbao queda exonerado de cualquier clase de responsabilidad y en todo caso.
- A hacer un uso no sexista del lenguaje en los documentos y

eta euskarrietan hizkera ez sexista erabili behar du.

- OHB programako jardueren % 30, gutxienez, euskaraz egiten direla bermatzea.
- Familiako jardueretan euskara komunikazio-hizkuntza izango dela bermatzea.
- Boluntarioak inskribatzeko inprimakian lauki bat txertatzea hizkuntza-gaitasuna erregistratzeko.
- Jaialdiko material inprimatuak/digitalak eta komunikazio ofiziala (sare sozialak, webguneak, inprimakiak...) hizkuntza ofizial bietan egitea.
- Hitzarmen honen seigarren klausulan aipatzen den justifikazio-memorian adierazle hauek jasotzea: euskaraz egindako jardueren kopurua, bisitak hizkuntza ofizial bietan egin ditzaketen boluntarioen kopurua, euskarazko jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua.

soportes que produzca con relación a la actividad subvencionada.

- Garantizar que al menos el 30% de las actividades del programa OHB se realizan en euskera.
- Garantizar que, en las actividades familiares, el euskera sea la lengua vehicular.
- Insertar en el formulario de inscripción del voluntariado una casilla para registrar la competencia lingüística.
- Realizar tanto los materiales impresos/digitales como la comunicación oficial (RRSS, web, formularios...) del festival se realiza en ambas lenguas oficiales.
- A recoger en la memoria de actuación justificativa a la que se refiere la cláusula sexta de este convenio los siguientes indicadores: número de actividades realizadas en euskera, números de personas voluntarias que puedan realizar las visitas en ambos idiomas oficiales, número de personas que han participado en las actividades en euskera.

BEDERATZI.- DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

Onuradunak jasotako finantzazioaren izaera publikoari publizitatea eman beharko dio, Bilboko Udalaren logotipoa jarritz ekitaldiari buruz sortzen dituen material inprimatu, elektronikoa nahiz ikus-entzunezkoetan, edo komunikabideetan argitaratzen dituen iragarkietan.

Argitalpenetan, gainera, edukiaren erantzukizunaren klausula bat ere jasoko da, hau dioena:

Bilboko Udalak diruz lagundu du proiektu hau. Hala ere, edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna da.

Modu berean, onuradunak hizkuntza ofizial biak erabili beharko ditu –euskara eta gaztelania– diruz lagundutako jardueraren publizitatea egiteko prestatzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Halaber, diruz lagundutako jarduera dela-eta egiten diren sustapen-jarduera publikoak ele bietan egingo dira, lehenik euskara eta ondoren gaztelania erabiliz.

Entitate onuradunak jaso dituen dirulaguntzen publizitatea egin beharko du, Gardentasunari, informazio publikoa

NOVENA. -PUBLICIDAD DE LA SUBVENCIÓN

La beneficiaria deberá dar publicidad al carácter público de la financiación recibida mediante la inclusión del logotipo del Ayuntamiento de Bilbao, en los materiales impresos, electrónicos o audiovisuales que genere relacionados con el evento o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación.

En el caso de publicaciones, se debe incluir además una cláusula de responsabilidad del contenido, con el siguiente texto:

El presente proyecto ha sido subvencionado por el Ayuntamiento de Bilbao, no obstante, su contenido es responsabilidad exclusiva de la entidad beneficiaria.

Así mismo, la beneficiaria deberá utilizar las dos lenguas oficiales, euskera y castellano, en los carteles, textos y documentos que se elaboren como elementos de publicidad de la actividad subvencionada. De igual modo, las intervenciones públicas de promoción ligadas a la actividad objeto de subvención serán bilingües utilizando el euskera y el castellano en ese orden.

La beneficiaria deberá dar publicidad de la subvención percibida en los términos y condiciones establecidos en la Ley

eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera. Lege horren 5.4 artikuluan xedatutakoa baliatuz gero, Dirulaguntzen Datu Base Nazionala izango da publizitatearen inguruko zereginak betearazteko bitarteko elektronikoa.

HAMAR.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean, eta gastua justifikatzean eta dirulaguntza ordaintzean amaituko da.

Adostasuna agertzeko, hitzarmen hau elektronikoki sinatzen da. Sinaduaren data sinatzaileen azkenarena izango da.

HIRI PLANGINTZAKO, PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO ETA ESPAZIO
PUBLIKOKO SAILEKO ORDEZKARIA/
EL DELEGADO DEL ÁREA DE PLANIFICACIÓN URBANA, PROYECTOS
ESTRATEGICOS Y ESPACIO PÚBLICO

Sin. / Fdo. Asier Abaunza Robles

19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. En el caso de que se haga uso de la previsión contenida en el artículo 5.4 de la citada Ley, la Base de Datos Nacional de Subvenciones servirá de medio electrónico para el cumplimiento de las obligaciones de publicidad.

DÉCIMA. - VIGENCIA DEL CONVENIO

La vigencia del presente convenio se extiende desde la fecha de su firma y finaliza con la justificación del gasto y pago de la subvención.

Y en prueba de conformidad se suscribe electrónicamente el presente Convenio. La fecha de firma será la de la última de las abajo firmantes.

OPEN URBANITY ELKARTEAREN ORDEZKARIA
EL REPRESENTANTE DE LA ASOCIACIÓN OPEN URBANITY

Sin. / Fdo. Andoni Pombo Aramendi